

Martxoaren 22an  
**GARIZUMAKO 4. IGANDEA**

### **Agurra**

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

### **Sarrerako oharpena**

Garizumako laugarren igande honi «laetare» igandea deitu izan zaio: alaitasunaren igandea, gertu dagoelako jada Pazko jaia. Otoitz sutsuagoa egiteko deia egiten zaigu: Jesusen eginkizuna da eta, beraz, bere jarraitzaileona ere bai, gizaki guztiei era beteagoan bizitzeko aukera aurkeztea; hitzez baino gehiago, bizi dutenaren testigantzaz eta salbamena gertarazten duten ezaugarrien bidez.

### **Damu-otoitza**

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrera Jaunaren mahaira gerturatzeko.

- Jesus Jauna, onginahi hutsez salbatzen gaituzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zure graziaz aberasten gaituzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea erakutsi diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

### **Otoitza**

**Oi Jainko, zure Hitzaren bidez  
 miragarriri adiskidetu zenituen gizon-emakumeak Zeurekin;  
 egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai,  
 presta dadila hurbiltzen ari diren pazko-jaietarako.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### **Hitzaren liturgiari oharpena**

Argiaren seme-alaba bezala ibiltzea da kristauei eta gogo honeko gizon-emakume guztiei dagokiena. Horretarako, beharrezkoa da begiekin bakarrik ez, baizik eta bihotzarekin ere begiratzen ikastea. Gaurko irakurgaiek argia emateko fedeak duen indarra azpimarratzen dute.

### **Lehenengo irakurgaia** (*1 Sm 16, 1b. 6-7. 10-13a*)

Samuelen liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Samueli: «Bete adarra olio, eta zoaz! Belengo Jeserengana bidaltzen zaitut, haren semeetan bat begiz jo bait dut nire erregetarako».

Iritsi zenean, Eliab ikusita, honela esan zuen bere baitan: «Ez ote da hau Jaunaren gantzutua?» Baina Jaunak esan zion Samueli: «Ez begiratu horren itxura eta luzeari, alde batera utzia daukat eta. Jaungoikoak ez dio begiratzen, gizonak begiratzen diotenari. Gizonek gorputz itxurari begiratzen diote; Jaungoikoak, bihotzari».

Bere zazpi semeak sar erazi zituen Jesek Samuelengana; baina honek esan: «Jaunak ez du horietakorik inor aukeratu». Orduan Samuelek galdetu zion Jeseri: «Ez al da beste semerik?» Eta hark erantzun: «Bai, txikiena; ardizain dabil». Eta Samuelek Jeseri: «Bidal ezazu norbait haren bila; ez gara jaten hasiko, hura etorri arte». Ekar erazi zuen, beraz, eta etorri zen: ile gorria zen, begi eder, ikusgarria mutila. Eta Jaunak esan zion Samueli: «Jaiki zaitetz eta gantzutu ezazu; hori da».

Hartu zuen, beraz, Samuelek olio adarra, eta gantzutu zuen bere anaien erdian. Egun hartatik, Jaunaren espiritua Dabiden jabe egin zen.

### Erantzun-salmoa (Sal 22, 1-3. 4. 5. 6)



Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean:

larre gurietan etzanarazten nau.

Atsedenezko iturrira narama, ‘

eta birbizten dit barrena.

Banarama bidezidor zuzenetatik, ‘

bere izennagatik. R/.

Ibar ilunetan banabil ere, ez nago gaitz-beldur,

Zu nirekin baitzaude:

zure zigorra eta makila,

hauek dira nirere poza. R/.

Atontzen didazu mahaia,

etsaiak dauzkadala begira;

olioz gantzutzen didazu burua,

gainezka dago nire edontzia. R/.

Zoriona eta grazia ditut aldean,

neure bizi guztiko egunetan;

eta Jaunaren etxean naiz biziko

luzaroen luzaro. R/.

**Bigarren irakurgaia** (*Ef 5, 8-14*)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Senideok: Lehen, bai, ilunbe zineten; orain, ordea, kristau bezala, argi zarete. Zabiltzate, beraz, argiaren seme-alaba bezala: on izate, zuzentasun eta egia guztia argiaren fruitu bait da. Aztertu, Jaunari zer zaion atsegin. Ez izan harremanik ilunbeko egintza usteletan, sala itzazue baizik. Izan ere, ezkutuan egiten dutena, esateko ere lotsagarri da. Argiak guzti horiek salatzen dituenean, agerian uzten ditu. Eta agerian dagoen guztia, argitasunez jazten da. Horregatik, esaten da: «Esna zaitetz, lo zauden hori! Jaiki zaitetz hilen artetik, eta Kristok argituko zaitu».

**Ebanjelio-aurreko gorapena** (*Jn 8, 12b. d*)

Je - su - kris - to gu - ri min - tza, ar - gi gu - re bi - ho - tza

Ni naiz munduaren argia -dio Jaunak-;  
nire ondoren datorrenak  
izango du bizirako argia. R/.

**Ebanjelioa** (*Jn 9, 1-41*)**Homiliarako argibideak**

*Itsua nintzen eta orain ikusten dut*

Askok uste dute, fedearen argia baliagarri izango zela agian iraganean, baina egun bide berriak urratu nahi dituenak aski duela giza arrazoiak baliatzea. Fedea ametsetako argia litzateke horrela

pentsatzen duenarentzat; fededunontzat berriz, fedea da aurkitu beharreko argia. Garizumako ibilbideko laugarren urrats honetan, **bataioari** begiratzen diogu: bera dugu bihotzaren eta adimenaren argitzea, Efesoarrei egindako gutunean aipatua (5, 8-14). Jaiotzaz itsua zenaren sendatzeak pixkanakako argitzearen pausoak erakusten dizkigu: ilunpetik argirako bidea agertuz (*Jn* 9, 1-41). Hasieran, itsua bakarrik ez, Jesusen ikasleak ere ilunpean zeuden. Ez zuten ulertzen gizon haren itsutasuna nondik zetorren eta iritzi nagusien edo azaleko itxuren arabera jokatzeko (1 *Sam* 6, 1. 6-7. 10-13).

Mirariak agerian uzten du sendatutakoaren ingurukoak direla itsuak, ez baitira hura ezagutzeko gai eta beste batekin nahasten baitute. Ingurukoak bakarrik ez dira, ordea, itsuak. Ongi ikusten dutela uste duten farisearrak ere itsu daude. Gertatu den mirariarekiko jakinmina dute, baina kontakizunak harrিতта, hitzik gabe uzten ditu. Hain daude itsutuak beraien **legekerian**, Jesus gaitzesten baitute larunbatean sendatu duelako. Beste batzuk ordea argiari bidea zabaltzen diotela dirui eta aitortzen dute bekatari batek ezin duela honelako miraririk egin. Itsuari Jesusi buruz galdetzen diotenean, argi ikusten hasten da eta **profetatzat** hartzen du, Jainkoaren gizon dela aitortuz.

Judu agintariak, beren itsukerian, nabarmena den miraria ezeztatu nahian, uste dute gizona ez zela itsua. Horretarako deitu zieten haren gurasoei. Hauek baieztatu egin zuten itsua zela, baina ez dakite nola gertatu den miraria, edo hobeki esan ez dute mirariaz ezer jakin nahi, Jesus Mesias dela aitortzea bailitzateke hori. **Juduen elkartetik baztertuko** zituzketen eta hori ez dute nahi. Horregatik ezjakintzat portatu eta semeari galdetzeko eskatzen dute, nagusia dela esanez bere kabuz erantzuteko.

Itsukerian itsu, agintariak bigarren galdeketa egin zioten itsu izanari, Jesus bekatarizat hartuz. Hori da **Jesus gaitzetsi** eta bere lan askatzailea baztertzeko bidea. Salbamen egintzaren onura jaso duen itsuak berriz, ezin du onartu Jesus bekataria denik. Agintariak diote Moisesen jarraitzaile direla, Jainkoaren bidalia zenarena. Itsuak dio Jesusek ere **Jainkoaren bidalia** delako egin duela miraria.

Agintariak ez dute hartu nahi irakaspenik bekategoriaren eskutik, Jainkoak zigortua baitzen itsu izatera, eta elkartetik kanpora bidali zuten. Orduan Jesusek onartzen du berekin eta Gizonaren Seme eta Jaun dela onartu eta sinetsi dezan eskatzen dio. Horixe aitortzen du itsu sendatuak, Jainko bezala gurtuz. Honela iritsi da itsua egiazko argitzera. Ikusten dutela uste dutenek, berriz, ez dute erremediorik. Betirako itsu izatera kondenatuak daudela dirudi. Eukaristia ospakizun honek argi ditzala gure bizitzak Kristoren misterioari darion argiz, gu ere argi izpi izan gaitezen bila dabiltzanen bidea argituz.

### Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitza Jaunari, ez baitu nahi bekategoriaren heriotza, bihotz-berritu eta bizi dadila baizik, eta eska diezaiogun izan dezala errukia bere herri damutuarekin:

*Erantzuna: Kyrie, eleison!*



Ky-ri - e, Ky-ri - e, e - lei - son! Ky-ri - e, Ky - ri - e, e - lei - son!

—Garizumaldi honetan adiskidetzearen sakramentua hartzeko prestatzen direnak Jaunak sendo ditzan eta euren erruen egiazko damua iristen lagun diezaien. Egigun otoitz. R/.

—Jaunak fedegabeen adimena eta bihotza zabal ditzan egia ezagutzera iritsi daitezen, euren bihotzak amesten duen egiazko atsedena iritsi dezaten. Egigun otoitz. R/.

—Gaixoiei, behartsuei, tentaldian bizi direnei eta sufrimenduarekin Kristoren Gurutzearekin bat egiten duten guztiei Jainkoak bere laguntza eman diezaien. Egigun otoitz. R/.

—Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak iris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. R/.

Errukian aberatsa zaren Jainkoa, barkamen besarkadaz onartzen dituzu damaturik zugana itzultzen direnak; entzun gure otoitzak eta gure bekatuak barkaturik jantzi gaitzazu ezta-soinekoz, pazko-otorduan parte hartu ahal izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Prefazioa**

*Garizumako IV. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 188. orrialdean.*

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Oi Jainko, Zuk argitzen dituzu  
 mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;  
 argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,  
 Zuri atsegin zaizuna erabil dezagun beti gogoan  
 eta Zu benetan maita zaitzagun.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### **Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena**

**Jauna zuekin.** R/. Eta zure espirituarekin.

**Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.**

*(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)*

**Zaindu itzazu, Jauna, zure laguntza eske dituzunok,  
indartu ahulak eta argitu beti zeure argiaz  
herio-ilunpean dabiltzanak,  
gaitz guztietatik bihotz onez aterata,  
ondasun gorenak eskura ditzaten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:  
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

**Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.**

*Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Meza-liburuan 643. or.).*